

Reggio Calabriako Adierazpena

**Osoko bilkuran aho batez onartua
Reggio Calabria, 2003ko urriaren 28a**

Eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak, 2003ko urriaren 27an eta 28an Reggio Calabrian bilduta, honako adierazpena onartu dute:

1. Europar Batasuneko konstituzio-eraberritzeak

Batzarrak arretaz jarraitu ditu Konbentzioaren lanak, nahiz eta ezin izan duen horietan parte hartu legebiltzar-ordezkaritza eskualdeen mailan aplikatu ez dela eta. Estatuburuak eta gobernuburuak Laekengo Adierazpenak eskualde-legeriaren garrantzia azpimarratu zuen, barne-legerian ezarritakoaren bidetik.

Eskualdeetako legebiltzarrek 2001eko urriaren 30eko Madeirako Adierazpenean eta 2002ko urriaren 29ko Bruselako Adierazpenean agertu zituzten beren jarrerak. EELBk horiek berretsi ahal izan zituen 2002ko ekainaren 25eko biltzarreko osoko bilkuraren entzunaldian.

Konbentzioak onartutako testuari begiratuta, EELB gustura dago konstituzio-itunak Europari bermatu nahi dion antolaketa berria dela eta, hamar estatutara hedatzeko prestatzen ari den honetan. Zehatzago esateko, nabarmentzekoa da Madeirako eta Bruselako adierazpenetan adierazitako eskaeretako batzuk aintzat hartu direla:

- Lankidetzaren leialaren printzipioaren elkarrekikotasunaren ingurukoa (I-2 art. 2. parag.)
- Eskualdeetako legebiltzarrek —legebiltzar nazionalkiko lankidetzaren bidetik eta fase legegilearen aurreko aldiak— prozesu legegilean parte hartzeari buruzkoa (subsidiaritasunari buruzko protokoloa eta I-46 art.).
- Konstituzio-xedapenak eta estatu bakoitzaren barne-antolaketa aitortzearen ingurukoa (I-5 art. 1. parag.).
- Batasunaren eskumenak garbi egotearen eta malgutasun-klausula berriz formulatzearen ingurukoa.
- Eskualdeetako Batzordeak Europako Justizia Auzitegira jotzeko ahalmenari buruzkoa (subsidiaritasunari buruzko protokoloa).

EELBk aditzera eman nahi du ez dagoela gustura eskualdeak, zehatzago esateko ahalmen legegilea duten eskualdeak, ez direlako zuzenean aitortzen (horiei dagozkien konstituzio nazionalak baino ez dituzte aitortzen) eta ez zaielako eman Europako Justizia Auzitegira jotzeko ahalmenik (barne-prozedura nazionalen bidez bakarrik egin dezakete hori).

EELBk, ahalmen legegilea duten eskualdeetako lehendakarien erakundearekin (REGLEG) bat etorritik, eraberritzeko prozesua osatu egin beharko dela uste du, gobernuen arteko biltzarren lanetatik abiatuta.

EELBren ustez, estatu kideek lankidetzaren horretan izan nahi duten ordezkariak askatasunez antolatzeak aukera hartu beharko du barne legebiltzar nazionalen buruzko protokoloak. Bide horretatik, eskualdeetako legebiltzarrei emango zaie parte hartzeko bide, konstituzio nazionalen aurreikusitako bezala. Bide beretik, kontsultarako dokumentuei buruzko informazioa emango zaie.

Horrez gain, EELBren ustez, ezinbestekoa da gehiago argitzea I-22 artikulua definitzeko (ex.art 203), eskualdeetako gobernuen ordezkariak Kontseiluaren lanetan izandako parte-hartzeari buruzkoa.

EELBren aburuz, eskualdeetako legebiltzarrek Eskualdeetako Batzordearen baitan duten presentzia berrikusi beharko litzateke. EELB Eskualdeetako Batzordea ondoren indartu egin beharko litzatekeelakoan dago, eta Batasuneko erakundearen mailara igo beharko litzatekeelakoan. Eskualdeetako Batzordeari kontsulta egin behar zaio eskumen legegileak dituzten estatuetako eskualdeen eskumen guztien inguruan, eta Europako erakundeak ez balira bat etorriko Eskualdeetako Batzordearen iritziarekin, beren desadostasuna justifikatu egin beharko lukete.

2. EGEOB

EELBk, lehendakaritza italiarraren esparruan, Bruselako Adierazpena aplikatuz eta Batzorde Iraunkorraren proposamenetan oinarrituta, harremanak izan ditu eta proposamenak egin dizkie Europako Gaietan Espezializatutako Organoen Biltzarreko (EGEOBeko) lehendakariari. EELBk barne-araudia zuzentzeko prestatutako proposamenak, Atenasen 2003ko maiatzaren 5ean eta 6an ordezkariak italiarreko eta alemaniarreko kide nazionalak proposatu zituztenak, beste estatu kide batzuen babesarekin, urriaren 7an eztabaidatu eta aztertu ziren EGEOBen osoko bilkuran. Lehendakaritza italiarrak bilera horretara agertzeko gonbitea egin zien Europako eskualdeetako legebiltzarretako hiru lehendakariari.

EELBk ordezkariak alemaniar, belgikar eta italiarraren proposamenak balioetsi ditu, baita urriaren 7an eskualdeetako legebiltzarren zereginaren inguruan egindako eztabaida ere. EELBk egoki irizten dio EGEOBek barne-araudia berrikusteko gaiaren inguruan lantaldea osatzeko hartutako erabakiari, eskualdeetako legebiltzarrek bere lanei lotzeko. EGEOBi eskatzen dio gobernuen arteko biltzarri jakinarazteko prozedura hori abian jarri dela, hala badagokio, fundazio-itunaren proiektuko *legebiltzar nazionalen zereginari buruzko protokoloa* egokitzeko.

3. Europako erakundeak

Europako Legebiltzarra

EELB pozik dago Europako Legebiltzarrekin, Pat Cox lehendakariarekin, Europako Legebiltzarreko Lehendakariarekin eta Eskualde Politika, Garraio eta Turismorako Batzordeko lehendakariarekin izandako elkarrizketak direla eta, baita negoziazioaren esparruan lortutako emaitzak direla eta ere. Batzorde horretako Lehendakariarekin lortutako akordioek aurreikusten dutenez, zabaldu egingo dira Europako Legebiltzarren eta eskualdeetako legebiltzarren arteko erakunde-harremanak, eskualdeetako legebiltzarrek Batzordearen eztabaidetan hitz egiteko eskubidea izango duten erakunde-ordezkariak izatearen bidez eta Batzordeari berari Europako legebiltzar-taldeek propietzat jo ditzaketen gaien inguruan eskualdeetako legebiltzarrek onartutako ebazpen-proposamenak aurkezteko ekimena aitortzearen bidez. EELBk elkarrizketa horrekin jarraitzea onartzen du, erakunde-lankidetzak indartzen lagunduko duelako Europaren esparruan.

Eskualdeetako Batzordea

EELB gustura dago 2003-2004 aldirako sinatutako lanerako egitarau bateratuarekin. Egitaraua Eskualdeetako Batzordeak prestatu zuen eta erakundeak eraberritzearen eta Europako eskualde-demokrazia indartzearen ingurukoa da. Sektore horietan onuragarri izango den moduan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten du egitarau horrek.

Europako Batzordea

EELB bereziki ase du Europako Batzordeak eskualdeetako legebiltzarrei legeak egiteko prozesuaren aurretiko aldian eta Batzordearen urteko lan-egitaraua eztabaidatzeko prozesuan parte hartzeko gonbitea egiteko ekimenak. Batzordearen ekimen horrek (gobernatze onari buruzko liburu zurian oinarritutakoak eta konstituzio-itunaren proposamenaren I-46 artikuluari jarraiki egindakoak) harrera bereziki ona izan du, kontuan hartzen badugu eskualdeetako legebiltzarrek maiz onartu behar izaten dituztela Batasuneko arauak aplikatzeko eskualde-mailako arau legegileak. EELBk azpimarratzen du Europako Batzordeak gehiago hartu behar lituzkeela kontuan Europako eskualdeen lurralde- eta konstituzio-aniztasuna nahiz kultur aniztasuna, baita horietako bakoitzaren berariazko ezaugarriak ere, horiek ez baitira oraindik behar bezala islatzen Europako eskualde-erakundeetan.

4. Hedatzea

4.1. "Eskualdeen Gutuna" eta lankidego-ekimenak.

Madeirako Adierazpena aplikatuz, EELBk Europan eskualde-demokrazia indartzen laguntzeko asmoa du, estatuen antolaketa-desberdintasunak errespetatuz eta oinarritzko printzipio batzuk partekatuz. Helburu hori gogoan, "*Eskualdeen Gutuna*" proiektua idatzi da. Proiektua 2003ko irailaren 19an Florentzian Europako eskualdeetako legebiltzarrek egin zuten eta ehun bat lehendakari bildu zituen topaketan aurkeztu zen sinatzeko. Norabide horretan, EELBk behatzaile-funtzioa garatzeko asmoa du, zeregin hori egotzi baitzion 2003ko maiatzaren 20an Europako Kontseiluaren Tokiko eta Eskualdeko Aginteen Biltzarrak, EELBekin lankidetzara iraukorrean diharduenak.

Europako Eskualdeetako Batzarrarekin eta Europako Kontseiluaren Tokiko eta Eskualdeko Aginteen Biltzarrarekin lankidetzan, EELBk, eskualdeetako hainbat legebiltzarrekin, erakunde eta administrazioen lankidego eta senidetzeak hedatu nahi ditu atxikitzeko fasean dauden herrialdeetako nahiz hirugarren herrialdeetako eskualdeetako legebiltzarrekin. EELBk berresten du Europar Batasuna beste herrialde batzuetara hedatzearen bidez eraldatzearen garrantzi historikoaren inguruan duen jarrera politikoa, baita hori egonkortzen laguntzeko borondatea ere, arreta berezia eskainiz ordekaritzarekin, legitimotasun demokratikoarekin, erantzukizun politikoarekin, parte-hartzearekin eta gardentasunarekin zerikusia duten printzipioak indartzeari. EELBk arretaz jarraitu nahi ditu Batasuna hedatzearen ondorengo prozesu guztiak eta horietan parte hartu nahi du, bere eskumenei eta horiekin zerikusia duten gaietara dagokien neurrian, betiere ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioari begira.

4.2. "Bizilagun berriak"

Batasuna hedatzeak muga berriak irekiko ditu eta ondoko herrialdeekin lankidetzara aritzeko aukerak ekarriko ditu berekin. Hori dela eta, EELBk Europako Legebiltzarrak eta Europako Batzordeak estatu mugakideekin, Errusiatik Marokora, lagunaren taldea eratzeke egindako ekimenak babesten ditu. Ekimen horiek herrialde horien arteko harremanak egonkortzea dute xede, elkartzasunean, justizia ulertzeko modu bateratuan eta herri horietako segurtasuna, demokrazia eta garapena indartzeko interes europarrean oinarritutakoak, hain zuzen ere. Zehatzago esateko, EELBk Mediterraneoaren arko herrialdeekin lankidetzara estuagoa izatea du helburu, kontuan hartuta presakoa dela merkataritza askeko eremu euromediterraneoarra eraikitzeke bidean aurrera egiteko dagoeneko negoziatu diren merkataritza-akordioak berrestea.

5. Beste legebiltzar batzuekiko eta legegileak ez diren beste batzar batzuekiko elkarrizketa

EELBk Lehendakaritza italiarraren ekimenen esparruan Amerikako estatuetako legebiltzarrekin hasitako elkarrizketak sendotu nahi ditu, Europako eskualdeetako legebiltzarrekin dagoeneko izandako esperientzian eta harremanetan oinarrituta. Horretarako, komunikaziorako bide bat ezarri nahi du, atlantikoaz haraindikoa hobeto ulertzen eta horiekin elkarrizketak izaten laguntzeko.

Horrezaz gain, eskumen legegileak dituzten Europako eskualdeetako legebiltzarren berariazko esparrua eraikitzeko jatorrizko borondatea berretsiz, EELBk egoki irizten dio Frantziako Errepublikako eskualdeetako legebiltzarrekiko eta Senatuarekiko elkarrizketari bide emateari, Lehendakaritza italiarraren ekimenen esparruan. Horrek kontuan hartzeko moduko emaitzak izan ditu estatu kideen konstituzio-egiturak eta barne-antolaketa errespetatzeari dagokionez. Halaber, ontzat ematen ditu Batasuneko bizitzan eta printzipio komun batzuen inguruko adostasunean izandako eraginak, esate baterako, Europa berrian, hedatutako European eskualde-demokrazia errespetatzean izandakoa.

6. Aniztasuna European

EELBk eskualde insularretako eta ultraperiferikoetako eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak zoriondu nahi ditu 2003ko maiatzaren 2an Cagliariin egindako topaketaren emaitzak direla eta, baita EELBko kide diren eskualde-hirietako legebiltzarrek ere, 2003ko otsailaren 25eko Berlingo Adierazpena dela eta. EELBk nabarmendu nahi du Europako eskualdeetako aniztasun geografiko, linguistiko, kultural, konstituzional eta soziala zaintzen eta balioesten laguntzeko borondatea duela, konstituzio-itunaren proposamenean ere aitortu bezala, betiere estatu kide bakoitzaren barne-antolaketa errespetatuz.

7. Beste eskualde-erakunde batzuekin batera egiteko jarduerak

EELBk baieztatzen du eskualde-erakundeekin lankidetzan aritzeko borondatea duela eta horretarako prest dagoela, hainbat eskumen-esparrutan. Izan ere, jarduera-esparru bateratu batzuetan egokia izan daiteke baterako ekintzak bultzatzea, eraginkorrago izan daitezen eta energia eta baliabideak nabarmen aurrez ditzagun.

Zehatzago esateko, EELBk pozik dago ahalmen legegilea duten eskualdeetako lehendakarien biltzarrekin, REGLEGekin, lortutako lankidetzaren maila ona dela eta.

8. EELB indartzea

Europako eskualdeetako legebiltzarretako lehendakariak gustura daude EELBk azkeneko urtean izandako jarduera handiagoak emaitza garrantzitsu batzuk lortzea ahalbidetu duelako, esate baterako, legebiltzarren arteko lankidetzaren esparruan eta EGEOBen inguruan. Lehendakariak eskerrak eman nahi dizkiote EELBko lehendakariari, Riccardo Nencini jaunari, EELBn egindako lana dela eta, baita Batzorde Iraunkorrekiko kideei ere, bost aldiz bildu da eta: Florentzian 2002ko abenduaren 9an, Estrasburgon 2003ko martxoaren 12an, Venezian 2003ko ekainaren 16an, Florentzian 2003ko irailaren 19an eta Reggio Calabrian 2003ko urriaren 26an. Europako eskualde legegile guztien batzarra dela baieztatuz, EELBk uste du ezinbestekoa dela lortutako emaitzak egonkortzea eta zenbait jarduera indartzea, arreta berezia eskainiz lankidetzari eta Europako gaietarako batzordeen arteko sarea eratzeari, hori Oviedoko Adierazpeneko helburuen artean hartu baitzen jada barne. Helburu hori gogoan, EELBren inspirazio-iturri diren printzipioak berretsi dira dokumentu erantsi batean eta

bertan identifikatu dira egin beharreko jardueraren ardatz nagusiak. Horrezaz gain, horiek aplikatzeko zeregina egotzi zaie hurrengo lehendakariizei eta Batzorde Iraunkorrari, EELBko kide diren legebiltzarren parte hartzea ahalik eta handiena izanik betiere.

Eranskinak

- A. ELBBren estrategiak eta lanerako egutegia
- B. Eskualde-hirietako legebiltzarretako lehendakarien adierazpena
- B. Eskualde insularretako legebiltzarretako lehendakarien adierazpena
- D. Jardueren programa eta *e-democracy* sarea